

1. **Hurrengoetatik, zein da egia sodioaren oreka-potentzialari (E_{Na}) buruz?**
a) Sodioak mintzaren bi aldeetan daukan kontzentrazioaren arabera da.
2. **Hurrengoetatik, zein da egia ekintza potentzialei buruz?**
b) Forma eta tamaina bera du axoiaren hasieran eta amaieran.
3. **Mintzaren aldi errefraktarioa.**
e) Aurreko guztiak egiazkoak dira.
4. **NT-ei buruzko honako baieztapenen artean zein da gezurrezkoa?**
e) Endokannabinoidak, neuropeptidoak izanik, kontzentrazio baxutan topatzen dira NS-an.
5. **Barrera hematoentzefalikoa:**
a) Odolaren eta entzefaloko zelula-arteko likidoaren arteko barrera da.
6. **Aurki ezazu oker dagoen bikotea.**
c) Bizkarmuineko adar gris bentrala-neurona sentsorialen somak.
7. **Hartzaile sentsorial tonikoei buruz:**
d) Moldapen motelekoak dira.
8. **Aparatu bestibularrari buruzko hurrengo baieztapenetatik zein da gezurrezkoa?**
b) Ile-zelulak dira neurona sentsorial primarioak.
9. **Zer da gezurra hartzaile muskulutendinotsuei buruz?**
b) Golgiren tendoi-organoak tendoiaren luzatze-maila antzematen du.
10. **Borondatezko mugimenduen plangintza:**
e) Aurreko guztiak gezurrezkoak dira.
11. **Non sortzen dira emozioak?**
a) Sistema linbikoan.
12. **Garunazaleko areei buruz, hurrengoetako zein da gezurrezkoa.**
b) Area motor primarioa muskuluetako informazio sentsorialak heltzen dira.
13. **Zein da neurona postganglionar sinpatikoek jariatzen duten NT-rik ohikoena.**
b) Norepinefrina.
14. **Zer da gezurra eritrozitoei buruz?**
c) Zitoeskeletorik gabeko gorputzeko zelula bakarrak dira.
15. **Zer da gezurra zelula autoeritmikoen mintzeko potentzialari buruz?**
b) Potentziala atariko boltaira heltzean sodio-kanal ugari irekitzen dira.
16. **Zer da gezurra bihotz-emariaren erregulazioari buruz?**
e) NSPS-ak kardiomiotoietara Ca^{++} gehiago sartzea eragiten du.
17. **Odol-presioa.**
d) Marruskadura dela eta murrizten da, odolak odol-hodiak igarotzen dituen heinean.
18. **Zer da gezurra arterioletako erresistentziari buruz?**
a) Erregulazio automiogenikoaren bidez ehunen metabolismo-tasa handitzean odol-fluxua handitu egiten da.
19. **Zer da gezurra presio arterialaren erregulazioari buruz?**
e) Basopresinak presio arterialaren jaitsiera eragiten du.
20. **Zirkulazio kapilarrean:**
b) Presio onkotikoa handiagoa da mutur benosoan mutur arterialean baino.
21. **Arnasgoran:**
b) Barruko pleurak birikatik tira egiten du.
22. **Zein da fluido pleuralaren funtzioetako bat?**
a) Biririkak kutxa torazikora atxikitzea, fluidoaren kohesioari esker.
23. **Zirkulazio sistemikoaren odol benosoan oxihemoglobinaren asetze-portzentaia %75ekoa da. Zein da horren esanahi fisiologikoa?**
e) HbO_2 -k O_2 -aren %25 askatu du ehunetan.
24. **CO_2 -aren garraioari buruz, hurrengoetako zein da gezurrezkoa?**
c) Odola ehunetara heltzean zelularteko likidoko P_{CO_2} plasmako baloretara murriztu arte irteten da CO_2 plasmara.

- 25. Zer da gezurra arnasketaren kontrol nerbioari buruz?**
b) Arnasketaren kontrolean odolaren tenperatura analizatzen duten hartzailer sentsorial zentralak hartzen dute parte.
- 26. Hurrengo parametroetatik zeinek dauka eragina arterietako oxigeno edukian?**
e) Aurreko erantzun guztiak egiazkoak dira.
- 27. Hurrengo indarretatik zeinek bultzatzen du iragazpen glomerularra?**
a) Kapilar glomerularreko presio hidrostatiakoak.
- 28. Hurrengoetatik zein da aparatua justaglomerularren funtzioetako bat?**
b) Nefronaren arteriola aferentearen uzkurdua eragiten duen parakrinoa jariatzen du.
- 29. Hurrengoetatik zein da aldosteronaren efektua?**
a) Tubulu distaleko epitelioan Na^+/K^+ ATPasaren adierazpena mintz basolateralean.
- 30. Espontaneoki arnasten ez duen paziente bati gehiegizko maiztasunarekin jarri diote aireztapen artifiziala eta azido/base orekaren asaldura bat garatu du. Nola erantzuten du bere organismoak?**
d) Tubulu distalean B motako zelulak H^+ -ak berxurgatzen eta HCO_3^- jariatzen ari dira.
- 31. Heste mehearen histologiari buruz:**
d) Kerckringen balbulek elkartruke-azalera handitzen dute.
- 32. Zer da gezurrezkoa behazunari buruz?**
c) Proteinen digestiorako ezinbestekoa da.
- 33. Funtzio gastrointestinalaren kontrol nerbioa:**
a) Hodi gastrointestinallean bertan zein kanpoan jasotako estimuluek piztu dezakete.
- 34. Zer da gezurra urdailari buruz?**
d) Farmako antihistaminikoek gehiegizko azido-jariapena eragin dezakete.
- 35. Zer da egia elikagaien xurgapenari buruz?**
c) Orohar, molekula txikiak xurgatzen dira.
- 36. Zein ez da hormona tiroideoen funtzioa?**
d) Nutrienteen xurgapena txikiagotzea.
- 37. Hauetariko adierazpen bat gezurrezkoa da:**
b) Progesterona-kopuru handiak eragiten du menstruazioa.
- 38. Aukeratu kaltzemiaren erregulazioari buruzko adierazpen zuzena:**
b) PTH hormonak D hormonaren aktibazioa bultzatzen du.
- 39. Hormona lipodisolagarriak:**
e) Proteinen kopurua aldatzen duten hormonak dira.
- 40. Pertsona hauen artean, nor izango da altuena?**
a) 9 urte zituenetik GHRH hiper-jariatzea pairatzen duen 18 urteko gazte bat.
- 41. Lo dagoen pertsona baten etxeko alarma bat batean aktibatzen da. Momentu horretan elektroentzefalograma bat egingo bagenio, zein izango litzateke nabarmentzen den erritmoa?**
b) Beta erritmoa.
- 42. Pertsona bati poligrafoa egiten ari diote. Erregistroa ikusita, egia esan arren, gezurra esaten duela dirudi. Zergatik?**
a) Nerbio sistema sinpatikoaren aktibazioaren isla da.
- 43. Erregistro honen arabera, zein da bihotz-maiztasuna?**
a) 45.